

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

*Tolosako kirol-klubei funtzionamendu-gastuetarako eta jardueren sustapenerako dirulaguntza arruntak emateko 2025. urteko oinarri arautzaileak eta deialdia. BDNS (identif.): 827076.*

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean aurki daiteke (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/827076>).

*Tolosako kirol-klubei funtzionamendu-gastuetarako eta jardueren sustapenerako dirulaguntza arruntak emateko 2025. urteko oinarri arautzaileak eta deialdia.*

1. *Onuradunak.*

Hauek izan daitezke dirulaguntza hauen onuradunak:

— Irabazi-asmorik gabeko kirol-klubak, baldin eta oinarri haue-tan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. *Xedea.*

Oinarri hauen xedea da arautzea irabazi-asmorik gabeko kirol-klubentzako dirulaguntzak, lehia bidezko konkurrentzian ematen direnak. Haien ohiko jarduera eta funtzionamendua garatzeko dirulaguntzak dira, eta Tolosako Udaleko Kirolak Sailaren helburuak errespetatzen eta indartzen badituzte ematen dira.

3. *2025. urteko oinarri arautzaileak eta deialdia.*

Alkateak, 2025eko apirilaren 11n, 2025/1068 Dekretuaren bidez, erabaki zuen onartzea ebazpenean jasotzen diren dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri arautzaileak eta deialdia.

Informazio zehatza interesdunen eskura dago Udalaren webgunean: <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=EU07112884>.

4. *Zenbatekoa.*

Deialdi honetan emateko dirulaguntzen zenbateko osoa da 18.000 €, Tolosako Udalaren Aurrekontu Orokorren partida honen kargura: 1000.481.01.341.00 (2025).

5. *Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu, eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Tolosa, 2025eko apirilaren 14a.—Angel Martinez de Rituerto Arregi, alkatea. (3025)

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Bases reguladoras del año 2025 y convocatoria para la concesión de subvenciones ordinarias para gastos de funcionamiento y fomento de la actividad de los clubs deportivos de Tolosa. BDNS (identif.): 827076.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/827076>).

*Bases reguladoras del año 2025 y convocatoria para la concesión de subvenciones ordinarias para gastos de funcionamiento y fomento de la actividad de los clubs deportivos de Tolosa.*

1. *Beneficiarios/as.*

Podrán ser personas beneficiarias de estas subvenciones:

— Los clubs deportivos sin ánimo de lucro que cumplan con los requisitos establecidos en las presentes bases y en la correspondiente convocatoria.

2. *Objeto.*

Las presentes bases tienen por objeto regular la concesión de las subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, a clubs deportivos sin ánimo de lucro, para el desarrollo de su actividad y funcionamiento ordinarios, siempre que respeten y refuercen los objetivos del Área de Deportes del Ayuntamiento de Tolosa.

3. *Bases reguladoras del año 2025 y la convocatoria.*

El Alcalde, mediante Decreto 2025/1068, de 11 de abril de 2025, acordó aprobar las bases reguladoras y la convocatoria que regulan la concesión de las subvenciones contempladas en la resolución.

La información detallada se encuentra a disposición de las personas interesadas en la página web del Ayuntamiento: <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=CA07112884>.

4. *Cuantía.*

El importe total de la subvención a conceder en esta convocatoria es de 18.000 € con cargo a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Tolosa: 1000.481.01.341.00 (2025).

5. *Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes será de 20 días naturales a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Tolosa, a 14 de abril de 2025.—El alcalde, Angel Martinez de Rituerto Arregi. (3025)